

ELAk Ingemarren Usurbilgo planta ixtearen konplizetza jo du UGT

USURBIL • Ingemarren Galiziako egoitzan hartu dute erabakia, ELAk salatu duenez. Zuzendaritza eta enpresaren Lugoko lantegiko langile batzordea ados jarri dira: Usurbilgo (Gipuzkoa) lantegia ixtea eta hango 31 langileak kaleratzea. UGTkoak dira zuzendaritzarekin akordioa lortu duten bost ordezkari sindikaletatik hiru, eta bi CIGekoak; ez bata ez besteak ez daukate ordezkartzarrik Usurbilen.

CAFen amiantoak 37 heriotza eragin dituela salatuko dute

Apirilaren 30ean omenaldia egingo diete amiantoaren eruz hildako lankideei Beasaingo plantan

BEASAIN • CAFeko langile erretiratu bi —I.S.E. eta A.S.H.— hil berri direla-eta, Beasaingo konpainia trengileko langile batzordeak omenaldi bat eta kontzentrazio bat egitera deitu du apirilaren 30erako, datorren astearteko, amiantoaren biktimen omenez. CAFen Beasaingo sarrera nagusian amiantoaren biktimen omenez egindako monumentuaren inguruan egingo dute omenaldia, 10:00etan.

Batzordeak oharrean azaldu duenez, dagoeneko 37 langile hil dira Beasaingo lantegian, lanpostuan amiantoa arnastearen ondorioz. Heriotza kopuru hori lan gaixotasunaren aitorza ofiziala jaso dutenei dagokie bakarrik. «Gai honetan nahastu-

ta dauden enpresen jarrera salatu nahi dugu, gaixoei edo hildakoei eta, ondorioz, baita familiartekoei ere, kalte-ordain edo laguntzen errekarguak eskatzeko oztopoak jartzen baitzikiete», adierazi du langile batzordeak.

CAFeko beharginek administrazio publikoaren «jarrera itxia» ere salatu dute. «Urte urte eragozpenak jarri dizkiete biktimak laguntzeko bideak zaildu eta Europako beste hainbat herrialdeetan funtzionatzen duten konpentsazio funts bat sortzeari. Bide horiek irekiko balituzte eta garrantzia emango baliete, biktimek ez lukete auzitara joan beharrik izango», gaineratu dute.

Haurdunaldirako arriskutsua izan daiteke larrialdi anbulantzia lan egitea

BILBO • EAeko Auzitegi Nagusiak erizain bati aitortu dio bere lana haurdunaldirako arriskutsua izan daitekeela; Ambuibericako larrialdi anbulantzia batean aritzen da beharrean. Hamabi orduko lanegunekin ari zela, eta gauean ere jardunean eta agente biologikoen arriskupean, erizainak behin-behineko etenaldia eskatu zuen haurdunaldia- ren seigarren astean, baina mutualitateak ez zion prestaziorik aitortu nahi hemezortzigarren astera arte.

1.000.000.000

BOEING 737 MAX BERRIEN EKOIZPEN KOSTUEN IGOERA, DOLARRETAN

Boeingek akziodunegi jakinarazi dienez, 737 MAX hegazkinak egitea mila milioi dolar (895 milioi euro) garestiagoa izango da orain, besteak beste hegazkin horien softwarea berritu behar duelako, eredu horretako bi 737 MAXek istripuak izan ostean.

Kutxabankek Apple Pay erosketa modua eskaintzen du atzodanik

BILBO • Bezeroei ordainketak iPhone, Apple Watch, iPad eta Mac bitartez egiteko era erraza, segurua eta pribatua eskaintzen hasi da Kutxabank. Besteak beste, kreditu edo zordunketa txartel bat Apple Pay-ren bitartez erabiliztean, txartelen benetako zenbakiak ez dira gailuan gordetzen, ezta Apple-en zerbitzarietan ere.



Jose Gregorio Luque Petronorreko kontseilari ordezkari berria, Emiliano Lopez Atxurrekin. MIGUEL TONA / EFE

Petronorrek «urte zaila» espero du, 2018an markak hautsi ondoren

Findegiak bi geldialdi egingo ditu aurten, etorkizunerako «makina perfektua» prestatzeko • 80 milioi euroren inbertsioa egingo du

J. Fernandez-I. Lasa

2018an, Petronorren 50. urteurrenaren urtean, Muskizko (Bizkaia) findegiak emaitza historikoak lortu zituen salmentetan: 11,9 milioi tona erregai saldu zituen, eta 176,3 milioi euroren irabaziak lortu. 2017an baino pixka bat gutxiago. Emiliano Lopez Atxurra Petronorreko presidentek atzo iragarri zuen 2019a ez dela izango markak hausteko urtea. «Urte zaila» izango dela azaldu zuen, konpainiak bi geldialdi programatu baititu: lehena urtarrietik apirilera bitartekoa izan da, eta hurrengoa maiatzean izango da.

Geldialdi horiek eragingo dute aurtengo emaitzak distiratsuek ez izatea, baina Lopez Atxurrak uste du geldialdiek balioko dutela Petronor «makina perfektu» bihurtzeko etorkizunerako eta merkaturako «posizio sendoari eusteko». Muskizkoa Ardatz Atlantikoko «erreferentziako findegi» izatea nahi dute haren buruzagiek, eta «argi luze» horiek geldialdi gehiago ekarriko dituzte 2022. urtera bitartean. Haien helburuak lantegiaren eragin kortasuna eta segurtasuna handitzea dira, bai eta ingurumenean duen eragina murriztea ere, «gaitasun, malgutasuna eta efi-

zientzia» handiagoen bila. «Bete batzuek ixten ari dira, eta gu, aldiz, gehiago sendotzen ari gara», azpimarratu zuen Lopez Atxurrak. «Etengabe teknologia sartu» beharra dagoela uste du, eta gaineratu zuen Petronorrek hori «beharra duelako» egiten duela, «horrek bermatzen dituelako emaitza onak».

Petronorreko presidentek esan zuen iazko urtea «ona eta gogobetegarria» izan dela. Petronorrek esportatu egin zituen sal-

datuko 11,9 milioi erregai tona horietatik %36. Halaber, inoizko destilazio bolumenik handiena lortu zuen: 78,7 milioi petrolio upel. Hala ere, zergak ordaindu osteko irabazi garbiak 176,3 milioi eurorenak izan ziren, 2017an baino bi milioi txikiagoak. 2017ko kontu horietatik 34 milioi euro banatu ditu dibidendutan,

lazko emaitzetan eragin zuzena izan dute Brent petrolio upelaren gorabeherak, eta batez ere azken hiruhilekoko prezio jaitsierak. 2018an, upelaren prezioa 85 dolarrean igo zen, baina urtea 50 dolarren bueltan itxi zuen; gaur egun, 65-70 dolarren bitartean dago berriz ere.

Apustuak, teknologian

+ Erregai fosilek tokia izango dute etorkizuneko energia mix-ean. Hori uste du Jose Gregorio Luque Petronorreko kontseilari ordezkari berriak, eta «toki hori ondoen aritzen direnentzat» izango dela. Edonola ere, Petronorrek beste teknologiei bide emango diela berretsi zuen. Lopez Atxurrak ere teknologiari lotuta ikusten ditu energia eta mugikortasuna, eta, ildo horretan, azaldu zuen Petronorren akziodun Repsolen kargaleku elektrikoetan edo sorkuntza banatuan egin dituen apustuekin doazela.

826 milioi Ogasunera

Petronorrek 76 milioi euroren inbertsioak egin zituen iaz -80 milioi izango dira 2019an-, eta zehazki 13,4 milioi euro bideratu zituen berrikuntzara. 2018an, findegiak 35.000 tona gas natural gutxiago kontsumitu zuen.

Petronorrek azaldu du iaz 826 milioi euroko ekarpena egin ziola Bizkaiko Ogasunari zergen bidez, lurraldeko bilketa osoaren %10,6. Era berean, Muskizko findegiaren jarduerak elikatzen zuten 2018ko Bilboko Portuko trafikoaren ia erdia (%47,3); 498 itsasontzi mugiarazi zituen.